



2008urteko PLATAFORMA

2007KO NEGOZIAZIOAREN ZAIN GERATU DIREN GAIAK

1. IRAKASLEEN IRAKAS DENBORAKO ASTEKO EREMUA

Irakasleen irakasdenboraren esparru orokorra ezarri irizpide desberdinak oinarritzat hartuz:

- Ohiko asteko lanaldia gehienez 32 ordukoa.
- Gehienezko irakasdenbora, asterako maila bakoitzean ezarritakoa.
- Irakastorduak eta egon beharreko orduak ez dira gauza bera. Hainbat lanetan -ikasleekin irteerak, ebaluaketak, tutoretzak, lan-orduen kanpoko prestakuntza, kalitate/berrikuntza/normalizazioko taldetan parte hartzea-erabilitako orduak lanordutzat aitortzea.
- Egon beharreko ordu osagarriak erregulatzea, zuzeneko irakas-lanetarako (aurreprestakuntza, programazioa eta zuzenketa) gutxienezko ratioa gordez eta beste eginbeharretarako (zaintzak, lan-taldeak, prestakuntza, bilerak...) gehien eta gutxienezko kuotak ezarriz:

2. G.M.ako PRESTAKUNTZA ZIKLOKO 2. MAILAKO LANGILEEN LANALDIA

- Ohiko egonaldia 32 ordukoa izango da, 22 ordu baino gehiagokoak diren eskola-orduen kontzentrazio aldietan ere, eta gehienezko areagotze aldia bukatzen denean eskola-orduen arabera proportzionalki murriztuko da.
- Gehienezko asteko eskola-ordu kopurua 26koa izango da, alderdien artean akordiorik ez badago.
- Bi aldeen artean akordioa dagoen kasutan, Hezkuntza Ez Araututako Ekintzak ohiko lanaldiaren barruan egon daitezke.

3. 58 URTETIK GORAKO IRAKASLEEI ORDU LEKTIBOEN MURRIZKETA

Langile hauentzat gehienezko asteko lanaldia ezarri:

- 58 urte betetzen duen ikasturtean, 20 ordu (HL eta LHn) eta 17 besteetan.
- Erretiro partziala hartu arte: 18 (HL eta LHn) 15 besteetan.

4. ANTZINATASUNAREN ONARPENA

Ikastetxe berebean behin-behineko kontratupean lan egin ondoren finkoak diren langileei antzinasuna automatikoki aitortu. Aurrekoa kontutan hartuta, lortutako eskubide ekonomikoak onartu.

5. LHI (Lanbide Hastapenarako Ikastetxeak)

LOEk araututako irakaskuntza bezala hartzen ditu programa hauek. Erakunde pribatuek kudeatutako kasuetan, hitzarmen honen esparrua. Egoerak, esparru honen langileentzat lan-erregulazio osoa eskatzen du.

URRITASUNARI AURRE EGITEN

1. HAUR HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOA

- Maisu/maistra: 1293 orduko lanaldia. Ordu osagarriak ezarri.
- HTE: 365 eguneko kontratuekin irakasle langileentzat onartu. 1557 orduko lanalditik 4 astero onartu programazio lanak egiteko. Lansaria: Hezkuntza Laguntzako Espezialistekin berdindu (%10,32a 2008ko igoyerari gehigarria)
- Laguntzailea: 365 eguneko kontratuekin irakasle langileentzat onartu. 1585 orduko lanaldia eta lansaria ikastolakoekin berdindu (%5,2a gehigarria).

2. HEZKUNTZA LAGUNTZAKO ESPEZIALISTAK

1390 orduetik 1293 ordura murriztea edo asteko lanaldiaren egokitzea.

